

## **Horniketarako Organo Teknikoaren ebazpena, Asier Colomak aurkeztutako aurkatze-idatzia dela-eta.**

Lehiaketaren proban jarritako ariketak planteatzen zuen batzarkide bat, Maider J, Batzar Nagusietako legelariarengana joaten dela aholku juridikoa eskatuz zenbait gairi buruz. Lehenengo galdera hauxe zen:

*Batzar Nagusiek Palestinako Estatua sortzearen aldeko iritzia ematea proposatu nahi du.*

### *1. Posible al da hori, eta, hala bada, zer ekimen mota erabili beharko litzateke?*

Horniketarako Organo Teknikoak (HOT, aurrerantzean) ontzat eman zuen erantzuna (emaitzekin batera argitaratu zena) da Ebazpen proposamena dela horretarako ekimen zuzena, Araudiaren 151. artikulua esaten duenari jarraiki. Xedapen horren arabera, ebazpen-proposamenen xedea da “Batzar Nagusiek gai jakin baten gainean eztabaida dezaten eta erabaki bat har dezaten”.

Aurkatze-idatzia aurkeztu duen lehiakideak (hemendik aurrera, lehiakidea) erantzun zuen hori posible dela, eta horretarako “Maider J. podría proponer que la Junta de Portavoces aprobara una declaración institucional de apoyo a la causa palestina. No obstante, dicha iniciativa debería contar con el apoyo unánime de los grupos junteros”.

Parlamentuek, besteak beste Gipuzkoako Batzar Nagusiek, tresna bat baino gehiago dute beren borondatea adierazteko. Batzarkide talde batek adierazpen politiko bat egin nahi duela galdetzen badu, esan beharko litzaioke tresna egokiena ebazpen-proposamena dela. Ohizkoa hori delako eta gehiengoz onartu daitekeelako. Adierazpen instituzionalak, ondo dioen bezala aurkatze-idatziak, guztien adostasunez onartu behar dira, eta emaitza hori lortzea ez da batere erraza.

Batzar Nagusietako Araudiak ez du definitzen zer diren adierazpen instituzionalak, inguruko parlamentuetako erregelamenduetan zehazten ez den bezala. Ez da ohizko ekimen edo erabakia, aitzitik ezohizkoa da. Bere ezaugarri nagusia da (horregatik eskatzen da aho batez onartzea) liskar politikorik sortuko ez duen gai bati buruzko parlamentuaren borondatea edo iritzia azaltzea. Adierazpen instituzionalak zer diren zehazteko beharrik nabarmendu da kasuren batean, adibidez Gaztela eta Leoneko parlamentuan, non Presidentziaren Ebazpen batek zehaztu baititu bere izaera eta erabilpena:

*“...la existencia de un ámbito de expresión de la voluntad popular referida a algunos valores esenciales para nuestra sociedad en la que confluye el sentir unánime de todas las corrientes ideológicas existentes en las Cortes, y que va más allá del ámbito de la iniciativa parlamentaria y de la discusión política plasmadas ambas en el Reglamento*

*de las Cortes que se han venido denominando, en el ámbito parlamentario, Declaración Institucional” (Resolución de la Presidencia de las Cortes de Castilla y León de 20 de junio de 2013)*

Joan den 13an, probaren puntuaketak jakinarazi zirenean lehiakideak email bat bidali zuen honako hau esanez:

*“Ez dut emaitzak aurkatzeko asmorik, baina lehenengo galderarekin zalantza geratu zait. Ez luke Adierazpen Instituzionala aurkezteko aukerarik izango, 2012an egin zen moduan (behean esteka)?”*

2012ko azaroaren 28an Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako adierazpen instituzional bat eransten zion testuari, Palestinaren inguruko erakunde-jakinarazpena zuena izenburutzat.

Erantzun hau eman zitzaion email horri, HOTen burua denak firmatua, honako azalpen hauek emanez:

*“Adierazpen instituzional bat proposatzea ez litzateke erantzun guztiz okerra, eta puntuaketaren laurdena eman diogu erantzun horri. Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu zuten, ondo diozun bezala, zuk aipatzen duzun adierazpena. Azaroaren 29an ospatzen zen nazioarteko egun baten harira onartu zuten, beste hainbat erakundek onartu zuten bezala.*

*Batzarretako Araudi edo Erregelamenduak ez du zorrotz bereizten bi ekimen horien artean. Dena den, zuzenbide parlamentarioan eta Batzar Nagusi hauetako praxian adierazpen instituzionalak, bere izenak dioen bezala, nazioarteko egunetarako edo alderdi guztien adostasuna lor dezakeen adierazpen berezietarako gordetzen dira. Guztien adostasuna behar izateak erabilera hori indartzen du.*

*Batzar Nagusien iritzia edo borondate politikoa adierazteko Ebazpenak erabili ohi dira (beste parlamentu batzuetan Ez Legezko –edo Ez Arauzko- Proposamenak deitzen zaie). Hori da bide zuzena. Jatorrizko proposamenari zuzenketak aurkezteko aukera ematen du, gainera, bide horrek. Adierazpen instituzionaletan (zeintzuen prozedura ez baitu Erregelamenduak arautzen, eta arau osagarri bat onartu behar izan zen duela urte batzuk) ez dago zuzenketak aurkezteko bidetik, eta onartzen direnetan batzarkide taldeak aritzen dira negoziatzen modu informalean guztien arteko adostasuna lortze aldera. Tresna berezia eta ezohikoa da adierazpen instituzionala. Horregatik guztiagatik, epaimahaia (organo teknikoa) osatzen dugunok kontsideratzen dugu ebazpen proposamena aipatu behar zela erantzunean. Esan bezala, adierazpen instituzionala aipatzea ez dugu bide guztiz txartzat eman, eta puntuaketaren laurdena eman diogu”*

Nazioarteko egunekin daude lotuak, gehien bat, adierazpen instituzionalak. Dena den, egun horien xedeekin zerikusia ez duten beste gai batzuk ere jaso ditzakete adierazpen instituzionalek, adibidez, lehiakideak aipatzen duen bezala, eraso sexistak salatzea edo lan istripuen aurrean samina eta elkartasuna adieraztea. Kasu horietan,

testu laburrak izan ohi dira, argudio gutxirekin eta eztabaida politikoan ez dauden kontuak saihestuz, guztien adostasuna behar delako.

Nolanahi ere, gakoa honako hau da. Ariketak eskatzen zuena da aholku egokia ematea batzarkideari Palestinako Estatua sortzearen aldeko iritzia emateko. Proposatzen den ekimenaren bideragarritasuna ezin da saihestu, eta horretarako gaiak guztien adostasuna lor dezakeen aztertu beharra dago. Estatu palestinarra sortzeari babes emateak ez dirudi, egungo eztabaida politikoaren gorabeherak ezagututa, batzarkide talde guztien adostasuna erraz lor lezakeenik.

Ez da okerra, dena den, ariketaren lehenengo galderari erantzunez, “adierazpen instituzionala” esatea, baina erantzun horrek azalpen bat beharko luke zuzena izateko, esanez guztien adostasuna beharko lukeela eta hori ez dela erraza lortzea gaiaren inguruan ikuspuntu politiko desberdinak daudenean. Eta, batez ere, ezin da Ebazpen Proposamenaren bidea aipatu gabe utzi, hori bailitzateke ohizko tresna. Erantzunean soil-soilik adierazpen instituzionala aipatzea, inolako azalpenik gabe, eta ebazpen proposamenei buruz ezer esan gabe, erantzuna oso hankamotz uztea da.

Horregatik guztiagatik, Horniketarako Organoak puntuaketaren %25 ematea ebatzi zuen. Kontuan hartu behar da, gainera, lehiakidearen erantzunean adierazpen instituzionalei buruzko errakuntza bat dagoela. Lehiakideak aurkatzeko idatzian dioen bezala, adierazpen instituzionalak arautzen dituen Lehendakaritzaren 1/2022 Ebazpenak esaten du adierazpen instituzionalak lehendakaritzak edo batzarkide-talde batek edo gehiagok proposatu ahal izango dituztela. Egindako probaren ariketan Maider J ez da bere GZ taldearen bozeramailea, eta taldeen proposamenei bere bozeramailearen firma behar dute. Ez da zuzena, beraz, esatea “Maider J podría proponer que la Junta de Portavoces aprobara una declaración institucional”.

Bigarren erantzunean lehiakideak esaten du Maider J batzarkideak bakarrik, taldearen babesik gabe, ezingo lukeela aurkeztu. Baina saihestezina da lehenengo galderaren erantzunean aipatutako okerra dagoela egiaztatzea. Erantzun bakoitzari zegokion puntuazioa eman zaio, beste erantzunak kontuan izan gabe.

Bigarren erantzunean pisuzko errakuntza bat dago. Eztabaidaezina da Maider J ez dela Talde Mistoko partaidea, argi eta garbi esaten baita ariketaren hasierako planteamenduan “hautagaitza horretako batzarkide hautetsiek batzarkide-talde bat osatu dute, Gipuzkoarron Zerbitzura (GZ) izenekoak”. HOTEk kontsideratu du hori errakuntza larria dela. Zuzena da esatea berak bakarrik, bere firma bakarrarekin alegia, ezin duela ekimena aurkeztu, baina erantzunak bere osotasunean baloratu dira, eta errakuntzak kontuan hartu dira, Araudi edo Erregelamendua behar bezala ezagutze aldera. Lehiakideak emandako erantzunari, edozein modutara, puntuaketaren %25 eman zaio.

Azaldutako guztia kontuan izanda, eta argudio guztiak ponderatuz, lehiakideak aurkatze-idatzian eman dituenak eta Horniketarako Organo Teknikoak puntuaketak emateko oinarritzat hartu zituenak, organo horrek erabaki du aurkatze-idatziaren xede diren erantzunei emandako puntuaketa aldatzea:

1 galderaren erantzunari 0,68 puntu ematea

2 galderaren erantzunari 0,68 puntu ematea

Halaber, Horniketarako Organo Teknikoak ebatzi du, aurreko erabakiarekin lotuta dagoen beste ariketa baten lehenengo galderaren erantzunari, arrazoi berberengatik, puntuazio berri bat ematea. Zehazki, Myriam Castilloren probaren

1 galderaren erantzunari 0,68 puntu ematea

Donostian, 2024ko maiatzaren 17an

Horniketarako organo teknikoaren izenean

Iñigo Lamarca Iturbe

Presidentea